


2002-08-07  
**Kioskoa****Ekaitz Agirre**

## «Arinegi joan gabe»

Ekainaren 27an Alderdi Politikoen Lege berria onartu zenetik, Santa Polakoa izan zen aurreneko atentatua, eta Batasunaren ilegalizazioaren gaia egunkari guztietako azale-tara ekarri du horrek. Espainiako presidente Jose Maria Aznarrek «zaborra» deitu zien Batasuneko buruzagiei, eta «denbora gehiagoz kalean lasai ibil daitezen uzteko» prest ez dagoela gaineratu zuen. Egunkari gehienetan oihartzun zabala izan zuten hitz horiek. «Zabor ETAzalea legez kanpo uzteko beharra» nabarmendu zuen esaterako **La Razon** egunkariak. **El Correo** etxeko egunkariak ere «inpunitate-arekin amaitu beharra» dagoela azpimarratu zuten. Baina, horrelako erabaki bat hartzerako orduan «arin-negi» ez dela jokatu behar gehitu zuten **El Pais**-ek eta **El Mundo**-k. «Batasuneko zuzendaritza moralki zaborraren pare jokatzin ari bada ere —ez da egokia Gobernuburu batek horrelakorik esatea—, kontu askorekin hartu behar dira horrelako erabakiak», zioen **El Pais**-ek.

**Deia**-k Aznarrek Santa Polako atentatua «abertzaletasunaren aurka jotzeko baliatu zuela» salatu zuen, «lekuz kanpoko mezu manipulatu eta onartezina helaraziz». Batasunaren inguruan honakoa zioen **Deia**-k: «ilegalizazioak ez du bakea erraztuko, eta ez du indarkeriarekin amaituko». «Gatazka areagotzeko arriskua besterik ez dakar», gehitu zion horri **Gara**-k.

Ilegalizazioaren gaiak gain, beste mezu bat ere aireratu nahi izan zuen **El Mundo**-k atzo. «Gobernuak ez luke arinegi jokatu behar Batasunaren ilegalizazioaren gaian, baina odol delituak dituzten terroristentzat bizi osorako kartzela zigorra ezartzea bultzatzea dezake».

**udamina****Pako Aristi****Historia del Gobierno Vasco**

**L**iburuak iazko argitaratze data darama, baina nik orain ikusi dut aldizkari instituzional batean iragarritak. Izenburua hau du: *Historia del Gobierno Vasco contada por sus consejeros (1980-1998)*. Egilea, hau da, kontseilari horiek hizketara bideratu dituenak, Iñaki Bizkarguenaga Atutxa da. Orri kopurua: 1585. Bi tomotan saltzen zaigula aiderazten da ondoan.

Totxo ikaragarri honen funtzioa ulertu nahian nabil ikusi dudaretik, zeren argazkia ere badator, eta mila alerekin etxe bat egiteko moduko sendotasuna ageri du liburuak bertan. Pena bat da gure instituziorik gorenaren memoria hau gaztelaraz egotea, baina ohitueak gaude *fundamentozko* gauzak gaztelaraz jasotzen, euskara halabeharrez idealista batzuen kontu bilakatzen duen jarduera sufritzen.

Baina gatozen liburuaren funtziora. Ageri dituen datak ez dute borobiltasunik agertzen, 18 urte ez baititu inork ospa-

tzen. 10, edo 20, edo 25 balira, zentzua luke. Bestalde, 1998a Lizarrako itunaren urtea da, baina esperimentu hark izan zuen norabidea ezagututa, ez diot ospakizunetarako motiborik ikusten.

Euskal politikak gaur bizi duen egoerarekin lotu beste erremediorik ez zait geratzen. Liburu hau zer da, testamentu bat, bukatutako epe baten emaitzak ahalik eta txukunen agertzen dituenak, ala irailean hastekoa den epe berriaren oinarria, jarraitu beharreko bidea erakutsiko diona?

Egoera berezian gaude, inoizko udarik xebleena dihoa aurtengo hau. Baketsu samarra, (azken orduko aldaketa: ez hain baketsua); halere, atxilotetek eta presoan egoerarekiko salaketek bortxakeria isil eta krudela egunero gogorarazten digute (Santa Polako bi hildakoak gaineratu behar minari). Gobernuan dugun hirukoteak bota zuen ordagoari bueltak emanez aurkitu gaitu udak, denbora irailera arte geratu egin balitz bezala. Ausartuko dira, ala ez? Egingo dute, ala ez? Noraino iritsiko dira? Beldurtu baietz! Ezetz!

Igandean Arnaldo Otegi pista batzuk eman dizkigu. Hirukotearen deklarazioa hain begi onez ikusi zuenak iruzurra prestatzen ari direla gaztigatu digu, Estatutuaz baino ez dutela hitz egiten, eta autodeterminazioa biharamunean bertan ezkutatu eta isildu zutela.


Liburukotearen funtzioa argiago dakusat orain. Agian hasi dira hurrengo prestatzen, baina izena aldatu beharko diote: *Historia del fracaso vasco*, esaterako. Hori euskeraz idatziko dute, noski.

**hizpideak****Burtsak arnasa hartu arren, zalantza asko**

Zeharo gaizki hasi zuten astea balio merkatuek herene-gun. Dena den, atzo galerei aurre egin eta arnasa hartu ahal izan zuten inbertsiogileek, akzio asko merke zeudela baliatuta. Azkenaldian isileko *crash* bat izan dute merkatuek, ez ekonomia egun batean dar-dar batean jar dezaketan amiltze erraldoi horietako bat, 1987koa edo 1929koa bezalakoa. Hala ere, egun bat bai eta bestea ere bai galerak pilatzen ari dira, zuloa geroz eta beltzagoa da, eta inbertsiogileek oraindik ez diote amaierarik ikusten. Gainera, burtsaren galerek ekonomian eragingo duten beldurra zabaltzen ari da egunotan. Atzo bertan adierazi zuen NDFk munduko ekonomia nagusiaren suspertzea mehatxatu dutela azken asteetako akzio salmenta etengabeek, konfiantza galerak eta Worldcomen antzeko eskandaluek. Merkatuek beherantz jarraituz gero, azkenean ekonomia errealerazabalduko dute krisia.

**Israel alde bakarrean, AEBen laguntzaz**

«Partziala», horixe da NBE Nazio Batuen Erakundeko Asanblea Nagusiak Israeli 2000. urteko irailean bigarren Intifada piztu aurreko posizioetara itzultzeko eginiko eskaria, Tel Aviven eta Washingtonen arabera. Partziala, Israelek egin asmo duen erretiratzea da; indarkeriari ez izateko baldintzapean Gaza eta Jerikotik ateratzen joatea. PAN Palestinako Aginte Nazionalak, ostera, lurralde autonomo guztien kontrola berriz ere berari itzultzea galdengin du, eta hori Ramala hiritik hasita egitea. Gatazkak bere hartan jarraitzen duen bitartean, 5 urtetik beherako ume palestinarren %30ek malnutrizio kronikoa dute, eta gaztetxoaren %19 anemiak jota daude. Horren erantzukizuna Israelgo Gobernuak berak bere gain hartu duen arren, lurralde palestinarretan ezarritako blokeoa bertan behera utzi ezean Tel Aviven hitzek ez dute inor elikatu-

**Egunkaria** euskaldunon 3.622. zenbakia**Ohorezko Lehendakaria:** Martin Ugalde**Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:** Joan Mari Torrealdai**Kontseilari Ordezkarria:** Iñaki Uribe**Zuzendaria:** Martxelo Otamendi**Gerentea:** Mikel Sorozabal**Publizitatea:** Idoia Sanz**Egoitza Nagusia:** Martin Ugalde Kultur Parkea, 20140 Andoain Tel.: 943300222 Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitateko faxa: 943300707**Webgunea:** www.egunkaria.com**Posta elektronikoa:** egunkaria@egunkaria.com**Publizitatea:** publi@egunkaria.com**Batzorde Parekidea:** 72564 E Lege Gordailua. SS 800/90 ISSN 1134-640X OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA**ORDEZKARITZAK ■ Araba:** San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965**Nafarroa:** Irabie Monasterioa, 45-13. esk. (Irritzi dorrea) 31011 Iruñea Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686**Bizkaia:** Egia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715 Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114**Lapuri, Nafarroa Beherea, Zuberoa:** Pelletier 35, 1 503 Posta kutxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511**hemeroteka****EN MARCHA  
EL MECANISMO  
DE ILEGALIZACION**

TASIO / GARA

Martxan ilegalizazioarako mekanismoa.